

ZABALTEGIK BERRIZ AURKITU DU BERE BIDEA

Bere izaera berreskuratzeko lanean ari da Donostiako Zinemaldiko Zabaltegi saila, zenbait urtez beste jaialdietan nabarmendutako perlekin espazioa konpartitzearen eraginez apur bat desitxuratuta geratu ondoren.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Bide zinematografiko berriak bilatzen dituzten filmetan fokua jarrita, eta Tabakaleran egoitza hartuta, iazko Zinemaldian argi geratu zen apustu arriskutsuak egiteko prest dagoela Donostia sail horretan –Lav Díazen *Hele Sa Hiwagang Hapis* programatu zuten besteak beste, 8 orduko metrajea duen film historiko-fantastiko bat–.

Formulak funtzionatu zuela dirudi: uztartu ziren kultuzko zuzendari eza-gunak (Jarmusch edo Tavernier 2016ko edizioan) eta talentu gazteei ateak zabaldu zitzaizkien, tartean etxeko publikoaren arreta bereganatzea lortu zuten Maria Elorza/Maider Fernandez Iriarte tandem (Las Chicas de Pasaik gisa ezagunagoak) edo Koldo Almandoz. Aurtengorako bizkar hezur horrek bere horretan jarraitzen duela dirudi. Sail Ofizialean zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra irabazi zuen Hong Sang-soo korearrak aurten estreinatu dituen hiru filmetatik azkena ekarriko du Zinemaldira, *Geu-hu*, zeina Cannesen lehiatu zen kontatuz emakume baten



Cannesen saritutako *'The Square'* ikusi ahalko da, besteak beste, Zabaltegi-Tabakaleran.

lehenbiziko laneguna, nagusiarekin harreman sentimental bat zeukan beste langile bat ordezkatzuz.

Beteranoen bandoan beste bi zuzendari esperientziadun konfirmatu dituzte abuztu bukaeran: Raymond Depardon *12 jours* eskainiko dute Zabaltegi-Tabakaleran, planteamendu berezia duen filma inondik ere, kontuan izanda zuzendariak kameraz grabatu dituela zentro psikiatrikoetan ingratu dauden pertsonen epailearen aurrean egiten dituzten deklarazioak, filmean gurutzatuz haien historial medikuak, osasun arloko profesionalen iritziak eta juzeen azken epaiak. Bestelako proposamena dirudi Frederick Wisemanen *Ex Libris: New York Public Library* filmak. Haren ibilbidean beti nabarmendu izan da kanpo-behaketa dirudien estiloa, lehen itxuran obserbazio hutsaren antza izan dezakeena, baina egitura narratibo bat aurkitzen duena. Instituzioak errodatzen ditu Wisemanek eta, kasu honetan, “munduko jakintzaren instituzio handi” batetik abiatu da. Veneziako

jaialdian lehiatuzetik etorriko da Zinemaldira.

Konfirmazio horiekin osatu da orain arte Phillippe Garrel izen nagusien artean zeukan saila –frantziarraren *L'amant d'un jour* Zinemaldian izango zela abuztu hasieran jakin zen–, Cannese-ko Urrezko Palma irabazi zuen Ruben Östlund-en *The Square* ikusteko parada emango duena.

Baina ezagunak diren zuzendarietz gain, Zabaltegi-Tabakalera sailak begirada berriak deskubritzera gonbidatzen duela dirudi eta, aurretik begiratu behintzat, izango dira itxura oso interesgarriko ekoizpenak egile gazteen eskutik, hala nola, Filipa César portugaldarraren *Spell Reel*, Ginea Bissauko independentzia borrokaren eta ondorengo periodo sozialistaren zinema militanteko irudiekin osatua; edo *No intenso agora* (João Moreira Salles), Txinako iraultza kulturalaren garaiko irudi amateurren gainean eraikia.

Bestela zine-areto batean ikusteko zailak diren ekoizpenak gehientsuenak. Eskertzekoa da aukera hau. ■